**DEBAKO HONDARTZAKO PASEALEKUAREN ONDOAN IZOZKIAK SALTZEKO HIRU POSTUEN INSTALAZIOA ETA USTIAPENA PROZEDURA IREKI ARRUNTAREN BIDEZ KONTRATATZEKO KLAUSULA TEKNIKO ZEHATZEN AGIRIA.**

**PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACION MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO ORDINARIO DE LA INSTALACIÓN Y EXPLOTACIÓN DE TRES PUESTOS PARA LA VENTA DE HELADOS ANEXOS AL PASEO DE LA PLAYA DE DEBA.**

**1. Helburua:**

Plegu honen xedea Debako hondartzako pasealekuaren ondoko jabari publikoko ondasunaren sektore bat erabiltzeko eskubidea arautzea da, bertan, izozkiak saltzeko hiru postu desmuntagarri instalatuz.

Erantsitako planoan zehazten da zein puntutan kokatuko diren.

Salmenta-postuen ustiapenak ez du salmenta ibiltaria egiteko eskubiderik ematen..

**2. Zerbitzuaren kudeaketa:**

Instalazioa izozkiak eta goxokiak saltzeko jarduerarako soilik erabiliko da, agiri honetan eta jarduera horretarako indarrean dagoen araudian baimendutako modu eta ordutegian.

Jabari publikoko ondasuna jabetza-eskubidea izan ezik erabiliko da, hirugarrenari kalterik egin gabe.

Zerbitzua eteteko eta, hala badagokio, ixteko agindu ahal izango du Udalak, baldin eta esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik zerbitzua gaizki ematen bada eta erabiltzaileen osasungarritasunerako, higienerako eta segurtasunerako beharrezko neurriak hartzen ez badira.

Berariaz debekatuta dago, salmenta ibiltariaren babesean, elementu mugikorrak edo instalazioak erabiltzea,

**1.Objeto**:

Constituye el objeto del presente pliego, la regulación del derecho de utilización de un sector del bien de dominio público en un lugar anexo al paseo de la playa de Deba, mediante la instalación de tres puestos desmontables destinados a la venta de helados.

Los puntos en los que se ubicarán se establecen en el plano adjunto.

La explotación de los puestos no comprende el derecho al ejercicio de la venta ambulante.

**2. Gestión del servicio:**

La instalación se destinará únicamente a la actividad de venta de helados y "chucherías" en la medida y horario autorizado en este pliego, y en la normativa vigente para la citada actividad.

La utilización del bien de dominio público se efectúa salvo el derecho de propiedad, y sin perjuicio de tercero.

El Ayuntamiento podrá ordenar la interrupción del servicio y en su caso la clausura cuando por causas imputables al adjudicatario la prestación ésta fuera deficiente, no contará con las medidas necesarias para la salubridad, higiene y seguridad de los usuarios.

Queda expresamente prohibido, al amparo de realizar la venta ambulante, la utilización de elementos móviles o instalaciones, que con o sin suministro

ESKU692d92c1-a399-4029-a362-3c467664e533

izan energia-hornidurarekin edo gabe, geldirik badaude.

de energía, permanezcan parados.

3**. Obrak eta instalakuntzak**:

**3. Obras e instalaciones:**

Postuek 9.25 m2ko azalera izango dute gehienez ere, eta erantsitako planoan adierazitako kokapena izango dute.

La superficie máxima autorizada para los puestos será de 9.25 m2 por cada uno y su ubicación será la señalada en el plano anexo.

Hondartza jasangarria lortzeko eta hondartzaren inpaktu bisuala minimizatzeko, izozki-postuak egurrezkoak izatea eskatuko da, eta kanpotik egur kolorekoak izatea, neutroak.

En pro de conseguir una playa sostenible y minimizar el impacto visual de la playa, se exigirá que los puestos de helados sean de madera, y que externamente sean de color madera, neutro.

Instalazioak behar bezala aprobetxatzeko beharrezkoak diren obra eta instalazio guztiak izango ditu.

La Instalación comprenderá todas las obras e instalaciones necesarias para su adecuado aprovechamiento.

Hozkailuek aurreikusitako lan-bolumenerako behar besteko edukiera eta tenperatura izango dute.

Las instalaciones frigoríficas tendrán la capacidad suficiente y la temperatura adecuada, para el volumen de trabajo previsto.

Esleipendunak ustiategian erabiltzen duen postua eta ekipamendua jabetza partikularrekoak dira, eta ez zaizkio inola ere itzuliko Udalari.

El puesto y el equipamiento que utilice la persona adjudicataria en la explotación son de propiedad particular, y no revertirán en ningún caso al Ayuntamiento.

Udalak energia elektrikoaren instalazioa emango du.

El Ayuntamiento proporcionará la instalación de energía eléctrica.

**4. Betebeharrak:**

4. **Obligaciones**

1. Esleipendunak Udaleko Zerbitzu Teknikoek aurreikusitakoa zorrotz betez egingo du instalazioa.

1.La persona adjudicataria realizará la instalación con estricta sujeción a lo previsto por los Servicios Técnicos Municipales.

2. Esleipenduna derrigortuta dago instalazioa funtzionamendu, garbitasun eta kontserbazio egoera onean edukitzera.

2. La persona adjudicataria se obliga a mantener en buen estado de funcionamiento, limpieza y conservación, la instalación.

3 Hondakinei dagokienez, horretarako beharrezkoak diren paperontziak izan beharko ditu, eta nahitaez jendearen eskura jarri beharko ditu gaikako bilketarako paperontziak, kolorearen arabera argi eta garbi identifikatuak,

3. En lo relativo a residuos, deberá disponer de las papeleras necesarias a tal efecto, debiendo obligatoriamente poner a disposición del público papeleras de recogida selectiva claramente identificables por su color,

ESKU692d92c1-a399-4029-a362-3c467664e533

postuan bertan. Ontziak biltzeko (horia), papera eta kartoia jasotzeko (urdina) eta gainerako errefuxarako (grisa) edukiontziak eduki beharko ditu.

en la misma ubicación del puesto respectivo. Al menos, deberá disponer de papeleras para envases (amarillo), para papel y cartón (azul), y para el resto (gris).

Eta horietako bakoitzean bildutakoa, dagokion bideko hiri-edukiontzietan hustu beharko da, betiere udaleko Ingurumen Sailaren jarraibideak betez. Ez dira inolaz ere hondartzako edo pasealekuko edukiontzietan utziko.

Y cuanto a la retirada de éstos, cada residuo deberá depositarse en los contenedores urbanos viarios correspondiente, siempre, siguiendo las instrucciones del departamento de medio ambiente municipal. En ningún caso depositarán estos residuos en los contenedores de playa o paseo.

Era berean, ahal den neurrian, bezeroekin biodegradagarriak ez diren plastikozko poltsak erabiltzea saihestuko du, eta lehentasuna emango dio Baso Jasangarrien jatorria duten paperezko edota plastiko biodegradagarri/konpostagarri diren poltsak erabiltzeari.

Así mismo, evitará en lo posible el uso de bolsas de plástico no biodegradable con la clientela, priorizando en todo caso las compostables y/o las de papel de origen de Bosques Sostenibles.

4. Esleipendunak ordaindu beharko ditu energia elektrikoaren hornidura-gastuak.

4. Serán de cuenta de la persona adjudicataria los gastos de Suministro de energía eléctrica.

Honako hauek ere esleipendunaren kontura izango dira:
- Esleipena erabiltzeko behar diren baimenak,
- Alta ematea eta izena ematea zerga-, merkataritza- eta Gizarte Segurantzako erregistro publikoetan.
- Instalazioaren urteko muntaketa- eta desmuntatze-gastuak, garraioa, etab.

También serán de cuenta de la persona adjudicataria:
- las autorizaciones necesarias para el uso de la adjudicación,
- darse de alta e inscribirse en los Registros Públicos de carácter fiscal, comercial, y de Seguridad Social.
- Gastos de montaje y desmontaje anual de la instalación, transporte, etc.

5. Esleipendunak aseguru-poliza bat sinatu beharko du, zerbitzua ematearen ondorioz pertsonei eragin dakiekeen edozein istripu edo kalte estaltzeko.

5. La persona adjudicataria se obliga a suscribir una póliza de seguros, que cubra cualquier accidente o daño que se pueda ocasionar a las personas como consecuencia de la prestación del servicio.

Erabilerak jabari publikoa suntsitzea, hondatzea edo kaltetzea badakar, esleipendunak Udalari ordaindu beharko dio berreraikuntza- edo konponketa-gastuen kostu osoa.

Si la utilización lleva aparejada la destrucción, deterioro o desperfectos del dominio público, el adjudicatario se obliga a reintegrar al Ayuntamiento el coste total de los gastos de reconstrucción o reparación.

Kalteak konponezinak badira, kalte-ordaina emango dio Udalari, suntsitutako ondasunen balioaren edo

Si los daños son irreparables, indemnizará al Ayuntamiento en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o

ESKU692d92c1-a399-4029-a362-3c467664e533

hondatutako ondasunen narriaduraren zenbatekoaren arabera.

al importe del deterioro de los bienes dañados.

6. Esleipendunak denboraldiaren amaierako txosten bat egin beharko du, gutxienez datu hauek jasoko dituena:

- kontratatutako langileak eta bakoitzaren kontratuaren kopia
- egindako gastuen banakapena
- izandako sarrerak.
- izandako gorabeherak
- hobetzeko proposamenak

Txosten hori azaroaren 15a baino lehen entregatu beharko da.

6. La persona adjudicataria se obliga a realizar un informe final de temporada, en el que consten al menos, los siguientes datos:
- Personal contratado y copia del contrato de cada uno de ellos
- Desglose de los gastos realizados
- Ingresos recibidos.
- Incidencias sufridas
- Propuestas de mejora

Este informe deberá ser entregado antes del 15 de noviembre.

7. Esleipendunak txukun eman beharko du zerbitzua, bai eskaintzen dituen produktuei dagokienez, bai horien presentziari dagokionez ere.

7. La persona adjudicataria se obliga a mantener un servicio muy esmerado, tanto en los productos que ofrece como en su presencia.

8. Bozgorailu, irrati edo antzeko tresnak erabiltzaileen, oinezkoen eta auzokoen erosotasunean eraginik ez izateko moduan graduatuko dira.

8. El uso de altavoces, radios o instrumentos similares se graduarán de manera que no afecte a la comodidad de las personas usuarias, transeúntes y vecindad.

9. Esleipendunak obligazioa du produktuen prezioak zehazterakoan, herrian antzeko kategoria duten saltokiek ezarritakoak baino handiagoak ez jartzera. Jendearentzat ikusteko moduko lekuan jarri beharko du produktuen prezio-zerrenda.

9. La persona adjudicataria se obliga a que los precios de los productos no sean superiores a los fijados para establecimiento de categoría similar en el pueblo, debiendo colocarse en lugar visible para el público la lista de los mismos.

10. Esleipendunak Udalaren ikuskapen teknikoa eta ekonomikoa baimenduko du edozein unetan, zerbitzuaren funtzionamendua pleguan eta indarrean dauden legezko xedapenetan aurreikusitakoarekin bat datorrela egiaztatzeko.

10. La persona adjudicataria permitirá en cualquier momento la inspección técnica y económica del Ayuntamiento sobre la gestión del servicio, a fin de comprobar que su funcionamiento se ajusta a lo prevenido en el Pliego y a las disposiciones legales vigentes.

11. Esleipendunak arau aplikagarri hauek beteko ditu: hiri-polizia, osasuna eta higienea, lan-araubidea, istripuak eta gizarte-segurantza enplegatuekiko zein erabiltzaileekiko harremanetan.

11. La persona adjudicataria acatará las normas aplicables de policía urbana, sanidad e higiene, régimen laboral, accidentes y seguridad social en sus relaciones con los empleados y usuarios.

Beraz, besteak beste, elikagaien manipulatzaile-txartela eduki beharko

Deberá por lo tanto, disponer, entre otros requisitos, del correspondiente

ESKU692d92c1-a399-4029-a362-3c467664e533

du, eta ontziratu gabeko salmenta-produktuetan, alergeno posibleei buruzko informazioa ikusgai jarri beharko du.

carnet de manipulador y en los productos de venta a granel, se colocará en un lugar visible la información de posibles alergenos

12. Esleipenduna behartuta dago instalazioarekin okupatutako jabari publikoko ondasunaren sektorea Udalaren esku uztera eta libre uztera, udal-zerbitzu teknikoen iritziz beharrezkoak diren baldintzak betez, denboraldi bakoitza amaitu eta 10 eguneko epean. Eta denboraldi bakoitza hasi baino hamar egun lehenago muntatzen hasteko baimena izango du.

12. La persona adjudicataria se obliga a abandonar y dejar libre y a disposición del Ayuntamiento en las debidas condiciones a juicio de los Servicios Técnicos Municipales en el plazo de 10 días siguientes al de finalización de cada temporada, el sector del bien de dominio público ocupado con la instalación. Y en el plazo de los diez días anteriores al comienzo de cada temporada, está autorizado para comenzar el montaje de la instalación.

13.- Esleipendunak ezingo du mahai eta aulkirik, salmenta-kamera osagarririk, ez eta eguzki-oihalik ere jarri.

13.- La persona adjudicataria no podrá colocar mesas y sillas, cámaras complementarias de venta, sombrillas.

14. Lanpostuaren ustiaketak dakartzan arriskuak esleipendunaren esku geratuko dira, eta hortik ez da inolako lan-harremanik sortuko udalarentzat.

14. La explotación del puesto será a riesgo y ventura del concesionario, sin que se derive relación laboral alguna para el ayuntamiento.

15. Udalak esleipendunari jendaurreko jardueretan laguntzeko eskatu ahal izango dio; adibidez, inprimatutako informazioa banatzeko (udal-mailako argitalpenak edo bestelakoak) edo hondartzaren inguruan egiten diren ingurumen-kanpainetan parte hartzeko (hondakinak murriztea, …)

15. El Ayuntamiento podrá imponer al concesionario/a la colaboración en actividades ante el público, como distribución de información impresa (publicaciones de ámbito municipal u otros) o participación en campañas medio ambientales que se desarrollen en el entorno de la playa (minimización de residuos, …)

Hori dela eta, Udalak, lankidetza horretan oinarrituta, egoki iritzitako ohar edo errotuluak jarri ahal izango ditu postuan, baita era guztietako iragarkiak, bandoak edo publizitatea ere.

Con tal motivo, el Ayuntamiento podrá colocar en el puesto los reclamos o rótulos correspondientes a dicha colaboración, así como todo tipo de anuncios, bandos o publicidad.

16. Esleipendunak gaur egun Debako hondartzan ezarrita dagoen UNE-EN ISO 14001 arauaren araberako ingurumen-kudeaketako sistemaren berezko baldintzak betetzen lagundu beharko du.

16. La persona adjudicataria deberá colaborar en el cumplimiento de aquellos requisitos propios del sistema de gestión Medioambiental según norma UNE-EN ISO 14001, actualmente implantado en la playa de Deba.

17. Udalak ur-kontsumoari, energiari (elektrizitateari) eta hondakin mota bakoitzaren gutxi gorabeherako

17. El Ayto. requerirá al adjudicatario/a, los datos relativos al consumo de agua, energía (electricidad) y generación

ESKU692d92c1-a399-4029-a362-3c467664e533

sorrerari buruzko datuak eskatuko dizkio esleipendunari, hornitzaile bakoitzaren fakturen edo inprimaki propioen bidez.

aproximada de cada tipo de residuo, mediante facturas de cada suministrador o mediante formularios propios

**Deba, 2021eko martxoak 5**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU692d92c1-a399-4029-a362-3c467664e533**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02910***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02910***